

Idien kanpaia



Jakoba Errekondo

Zenbat ordu eman ote dute gure nekazari-eriek zerutik datorrenaren peskizan? Eta igaro beharko dituztenak. Sekula santan ez da eguraldiarekin letorkeenaren beldur hori galduko; ezkutatu, aldendu, haizatu bai, baina betirako uxatzea ezinezkoa.

Baratzeetako musika eta doinuak entzunez herriko ortuetatik bira polita osatu dugu Beran; 16. ERTZ ekimenak antolatu du, eta ikaragarri aberatsa izan da, herriero beharko lukeen eskola horietakoa. Musikariak baratzea janzen, landareen komunikazioaren doinuak, lurpeko soinuaren baratzea, baratzean landatutako argazkiak, barazki gordinak hozkatu eta ahoko errotan txikitzearen kontzertu erromatarra eta ezki-lak jotzea. Kanpaiak jotzea bai.

Ezkila jole laukote ederra bildu zen Kaxernako gaineko herri baratzeetan: Aramaiotik, Aixolako Lantoko Pedro Azkargorta, Aretxabaletako Areantza auzoko Etxebarriko Julen Abasolo eta Arabako Lautadako Burgeluko Boni Jausoro eta Nati Lopez de Munain.

Nekazaritzari lotutako joaldiak eskaini zituzten. Bakoitzak bere ekosistemako joaldiak. Jo aurretik, dangako bakoitzaren nondik norakoak azaldu, bi kanpaien mingainei motzean heldu, bakoitza esku banatan, eta kanpai deiak



Nekazaria eta haren alaba, idi parearen alboan geldirik angelusa erreztatzen, XX. mende hasieran.

ENRIQUE GUINEA

dan-danba. Bertatik bertara, oilo ipurdia jartzeko modukoak; bailarari begira, hotsa nola hedatzen zen ikus zitekeen.

Garbantzu-kanpaia entzun genuen, larunbatetan jotzen dena; igandean txitxirioa (*Cicer arietinum*) jaten den eguna izanik, bezperan gogoratzea, beratzen jartzea ez ahazteko ote? Hodei-kanpaiak zerua belztu eta ekaitz beldurra denean jotzen da, hodeiak ura besterik ez zezan utz eta harria eta txingorra urruntzeko. Kanpaien lagungarri, apaiak eliz atarian konjuruak egingo ditu eta baserrietako larrinetan, sanjoane-

tan bedekinatutako belar sortako ale batzuk erreko dira, pala gaineko surtako brasetan. Letxuga-kanpaia ere jo zuten, maiatzeko eta iraileko santikurutzeen artean eguerdiko angelusean jotzen dena; garai batean hori zen letxuga edo uraza (*Lactuca sativa*) izaten zen sasoi. Angelusa abemarietarako unea da, eta lana, edozein dela ere, bere horretan utzi eta erreztatza jarri behar. Idi pare batzuek ezagutzen omen zuten doinua, eta lanean ari baziren, entzun orduko geratu. Erreztatzen ari zenari barre ttikia egingo zioten... ■

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



Tolosako Babarruna



Hoberenak
soilik
aukeratzen
ditugu

© 943 650 253 · www.tolosakobabarruna.com



Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailtarako

Otadui Gotzaina, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)
© 943 783 447 / 617 442 466
www.tanatorio-guipuzcoa.com